

**B1**

**MUNDUA**

**KORRIKAREN AHIZPAK**

KORRIKAREN antzeko ekimenak, munduan zehar (6. eta 7. or.)

**EUSKAL HERRIA**

**BADATOR 22. KORRIKA!**

22. KORRIKAREN aurkezpen orokorra (4. eta 5. or.)

**EDITORIALA**

**... ETA KORRIKA IZAN ZEN!**

KORRIKAREN sorrera eta historia laburra (2. eta 3. or.)

*æk*  
**22.korrika**

# HITZETIKIN

**Amurriotik Donostiara**

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era





## ... ETA KORRIKA IZAN ZEN!

Hirurogeita hamarreko hamarkada bukatzen ari zen. Mahai baten inguruan, afalostean, euskaltzale batzuk zeuden **solasean**. Egun hartako gaia euskara zen. Urte haietan, Franco hil ondoren, euskalduntzerako ateak zabaltzen hasi ziren, apurka-apurka; eta prozesua indartzeko ideiak aztertzen ari ziren afaltiarrek. Urte batzuk lehenago, 1977an, lehenengo *Kilometroak* antolatu zen Beasain-Lazkaon, Gipuzkoako ikastolan aldeko **ekimen** handia; ez da zaila imajinatzea, beraz, afalondoko tertulian ekimen hari buruz hitz egingo zutela. Horretaz ari zirela, ez da zaila imajinatzea **solaskide** bat *"Ikastoletakoak herri batean ibiltzen badira, zergatik ez gu Euskal Herri osoan?"* esaten; eta bigarren bat, *"Eta, oinez beharrean, korrika!"* gehitzen;



eta hirugarren bat, *"Eta egunez eta gauzez, gelditu gabe!"* **gaineratzen**; eta ez da zaila imajinatzea afaltiarren bat, oinak lurretik hurbilen zituena, ziurrenez, *"Hori ezinezkoa da, lagunak!"* esaten; eta batzuek baietz, besteek ezetz... baten batek *"Ezetz antolatu!"* hitz magikoak esan arte. Hortik aurrerakoa ere ez da zaila imajinatzea; **izan ere**, zerbait egitea nahi baduzu, horixe da modurik onena: esan euskaldun bati *"Ezetz egin!"*, eta helburua lortuko duzu. **Hutsezina** da!

**Solas:** conversación, charla; *conversation*  
**Ekimen:** actividad, iniciativa; *initiative*  
**Solaskide:** interlocutor, -a; *interlocuteur, -trice*  
**Beharrean:** en vez de; *au lieu de*  
**Gaineratu:** añadir; *ajueter*  
**Izan ere:** de hecho; *en fait*  
**Hutsezin:** infalible; *infallible*

Horrela, 1980ko azaroaren 29an, euskaltzale batzuk Oñatitik atera ziren korrika, eta abenduaren 9an, Bilboraino iritzi ziren, Euskal Herri osoa gau eta egun zeharkatu ondoren. Euskararen lurraldean, berriro ere, "Ezina, ekinez egina".

Lehenengo KORRIKA hartatik 42 urte eta 21 edizio joan dira; eta abentura hura antolatzea **erronka** handia izan zen moduan, ondoko ekimenen bidea ere ez da erraza izan. Hasierako edizioetan, Euskal Herriko alderdi politiko batzuek KORRIKari boikot egitea eskatu zuten; baina, boikotaren gaineratik, KORRIKA egin zen, arrakasta handiz gainera. Edizio batzuetan, debeku-mehatxuak egon dira: bigarren KORRIKAn, esaterako, Nafarroako gobernadore zibilak herrialdean ibiltzea debekatu zion lasterketari; eta hamahirugarrenean, Nafarroako Gobernuak lasterketa Iruñean sartzeari **galazari** nahi izan zuen. Baina debekatzailleek ez zuten beren helburua lortu, eta KORRIKA egin zen. Eguraldia ere ez da beti korrikalarien lagun izan, eta **zangarte** bat baino gehiago jarri dizkie. Meteorologiari dagokionez, hamabosgarren edizioa bereziki zaila izan zen: Urizaharreko mendatea elurrak itxita aurkitu zuten korrikalariak, Bastidatik Trebiñurako bidean; eta, Castejón aldean, Ebro ibaiak gainezka egin zuen eta errepidea moztu. Baina ez elurteek, ez uholdeek, ez zuten korrikalariak beldurtzerik lortu, eta urte horretan ere KORRIKA egin zen.

Hogeita bigarren edizioa 2021eko udaberrian antolatu nahi zuen AEK-k. Baina urtebete lehenago Wuhan urrunean sortutako birus batek, mundu osoa hankaz gora jarri zuen batek —COVID 19ak, hain zuzen— ekimena bertan behera uztera behartu zuen.



Hala ere, urteetan boikot, mehatxu, elurte, uholde eta abarrek ez dute lortu KORRIKA geraraztea; beraz, nekez lortuko du zomorrotxo batek. Hala, egun gutxi barru KORRIKA egingo da, berriro ere, eta Euskal Herri osoa euskararen aldeko zoro zoragarri beteko du.

Nik neuk parte hartuko dut KORRIKAn, zoro zoragarri horietako bat izango naiz. Eta zu?

**Erronka:** reto; *défi*  
**Galarazi:** debekatu  
**Zangarte:** zancadilla; *croche-pied*



De Rerum Natura

@zaldierox

# BADATOR 22. KORRIKA!

KORRIKAREN 22. edizioak martxoaren 31n emango dio hasiera aurtengo ibilbideari



Remigio Mendiburuk 1. KORRIKArako diseinatu zuen lekukoa San Telmo Museoan dago, 1988az geroztik; gaur egun, Juan Gorritik eginiko kopia erabiltzen da lasterketan.

COVID-19ak sortutako egoerak urtebeteko atzerapena ekarri duen arren, laster ikusi ahal izango dugu berriro ere KORRIKA gure herrietako kaleetan. Lasterketaren 22. edizioa izango da aurtengoa, eta Amurriotik Donostiara joango da, 11 egunean, gau eta egun, euskararen aldeko **aldarrikapena** zabaltzen. Egun horietan, Euskal Herriko herri gehien-gehienetatik ibiliko da lasterketa, mezu sekretua gordetzen duen lekukoa eskuz esku pasatuz.

## HitzEkin: 22. KORRIKAREN leloa

Hogeita bi zenbakia **esanguratsua** da Euskal Herrian; izan ere, pilotalekuan jokatzeko diren hainbat partidaren **jomuga** izaten da: hogeita bigarrena, azken tantoa, partida nork irabaziko duen erabakitzen duena. Bada, mezu hori zabaldu nahi du KORRIKAK hogeita bigarren edizio honetan: ezinbestekoa dela partida hau irabaztea, **ekiteko** ordua dela, orain bukatu behar dela tantoa, orain irabazi behar dela **norgehiagoka**, Hitzekin, Hitzarekin eta Ekinarekin.

**Aldarrikapen:** reivindicación; *reivindication*  
**Esanguratsu:** significativo, -a; *significatif, -ive*  
**Jomuga:** meta; *objectif*  
**Ekin:** acometer; *entamer*  
**Norgehiagoka:** competición; *compétition*



Pirritx, Porrotx eta Marimotots KORRIKAK eskainitako omenaldian, Tolosan

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots, 22. KORRIKAREN omenduak

KORRIKA bakoitzak euskararen alde **nabarmendu** den pertsona edo erakunderen bat omendu ohi du, eta, aurtengoa, Pirritx, Porrotx eta Marimotots izan dira aukeratuak. Aiora Zulaikak, Joxe Mari Agirretzek eta Mertxe Rodriguezek osaturiko pailazo-hirukotea 1987an sortu zen, Lasarte-Orian, eta 34 urteko ibilbidea euskaraz egin ondoren, Euskal Herriko pailazorik ezagunenak eta arrakastatsuenak bilakatu dira. Haien ibilbidean, euskararen transmisioa goitik behera (guraso-ume) eta behetik gora (umeguraso) landu dute, eta zuzeneko eragin handia izan dute ume eta guraso askok euskararen aldeko hautua egin dezaten. Lan hori eskertzeko, 22. KORRIKAK omenaldia eskaini zien pailazoei Tolosan, urtarrilaren 7an.

## KORRIKAREN kanta

KORRIKAREN 22. edizioko kanta Iruñeko Golem Baiona aretoan aurkeztu zen, abenduaren 16an. Abestiak "HitzEkin" du izena, letra Sustrai Colina bertsolariak idatzi du, eta Nerea Urbizuk jarri dio musika Sustrairen testuari, pop-kutsua emanda. Kanta Nerea Urbizuk, Anarik eta Ane Garciak abesten dute.

**Nabarmendu:** destacar; *(se) distinguer*  
**Jorratu:** tratar; *traiter*

## Euskaltegiarako ekarpen ekonomikoa

Euskara kalera ateratzeaz batera, KORRIKAK badu bigarren helburu nagusi bat: euskaltegien eguneroko lana indartzeko baliabide ekonomikoa biltzea. Izan ere, administrazioen aldetik aurrerapausoak eman diren arren, oraindik badago zer hobetu euskaltegien eta euskalduntzearen beharrei erantzuteko. Helburu horri begira, hiru bide nagusi **jorratzen** dira KORRIKAN: kilometroen salmenta, KORRIKA materialaren salmenta eta KORRIKA laguntzailea. Aurtengo edizioan, AEK-k azken bide horri eman nahi dio bultzada berezia, ahal beste euskaltzale KORRIKA laguntzaile bilakatuta.



Anari, Nerea Urbizu eta Ane García musikariak



# KORRIKAREN AHIZPAK

1980an sortu zenetik, KORRIKA, edizioz edizio, Euskal Herrian egiten den euskararen aldeko ekimenik handiena bilakatu da, eta **ukaezina** da Euskal Herrian hartu duen garrantzia. Baina lasterketaren arrakastak Euskal Herriko mugak ere gainditu ditu, eta **eredutzat** hartu izan dute munduko hainbat herritan. Horrela sortu dira KORRIKAREN ahizpak: antzeko ekimenak, hizkuntza gutxitu batzuen alde antolatua.



Ar Redadeg (Bretainia)



Correllengua (Katalan Herriak)



Correlingua (Galizia)

## Katalanaren eta galizieraren aldeko lasterketak

KORRIKA sortu eta 13 urtera lehenengo ahizpa jaio zitzaion euskal lasterketari, Katalan Herrietan. Correllengua **bataiatu** zuten, eta haren helburua da katalanaren **sustapena** bultzatzea. Lehenengo edizioa Mallorcan antolatu zen, 1993an; bigarrena, Valentzian, urte bi geroago; 1996tik aurrera, katalanez mintzatzen den lurralde guztietara zabalduz joan da.

Pasa den mendeko azken urtean, 2000. urtean, KORRIKAREN bigarren ahizpa jaio zen, Galizian: Correlingua, galiziera hizkuntzaren garrantziaz **ohartarazteko** ekimena. Familia, apurka-apurka, handituz zihoan.

## KORRIKAREN ahizpak, Europar zehar

2008an Bretainiara iritsi zen KORRIKAREN ideia, eta *Ar Redadeg* lasterketaren lehenengo edizioa antolatu zuten, bretoiera hizkuntzaren alde. Edizio hark 600 kilometro inguru bete zituen, Naonedetik (Nantes) Karaez-eraino (Carhaix). **Harrezkero**, *Ar Redadeg* Euskal Herriko KORRIKA bezala antolatu da: bi urtez behin egiten da, korrikalariak txandaka aritzen dira gau eta egun, eta hasieratik amaiera arte lekuko bat eramaten dute, eskuz esku pasatuta, barruan mezu sekretua duela.

**Ukaezin:** innegable; *indéniable*

**Eredu:** modelo; *modèle*

**Bataiatu:** bautizar; *baptiser*

**Sustapen:** impulso; *impulsion*

**Ohartarazi:** advertir; *avertir*

**Harrezkero:** desde entonces; *dès lors*

Bi urte geroago, 2010ean, *Rith* izeneko lasterketak Irlanda osoa zeharkatu zuen bertako gaelikoaren alde, KORRIKAREN eta *Ar Redadeg*-en formatu berberarekin. Eta, Britainiar uharteak utzi gabe, 2014an galestarren txanda iritsi zen, *Ras yr Iraith* izeneko ekimenarekin. Azken horretan ere KORRIKA hartu dute eredutzat, baina gauzez atsedena hartuta.

Azken urteotan, beste hiru ahizpa txiki jaio zaizkio KORRIKARI Europar: 2018an *Le Passem* lasterketa sortu zen, okzitaniararen alde; 2020an, *Sprochrenner*, alsaziararen alde; eta 2021ean, azkenik, *Curilingua* etorri zen mundura, Korsikan, Parlemu Corsu kolektiboak antolatuta, korsikeraren alde.

## Lefkantun, ahizpa txiki amerikarra

KORRIKAK eragin handia izan badu ere Europako hizkuntza gutxituen artean, haren **eragina** ez da kontinente zaharrera mugatu, eta, dagoeneko, ozeanoaren beste aldera gurutzatua da. Horrela, 2016an maputxe hizkuntzaren lehenengo Korrika antolatu zen, Lefkantun izeneko, Temuco herrian (Araucanía, Txile).

**Eragin:** influencia; *influence*



Ras yr Iraith (Gales)



Lefkantun (Wallmapu)

# "KORRIKA LAGUNTZAILEAK BIZITZA ALDATU DIT"

Iñazio, KORRIKA laguntzaile egin aurretik.



"Gizajo bat nintzen. Ez nuen lan bakarrean ere irauten. Plan bat bururatzen zitzaidan bakoitzean, lagunek zeregin **saihestezinen** bat izaten zuten, beti: ezkontza bat, hileta bat, lapikoa sutan... Maskotekin ere ez nuen zorte hoberik izaten: Pituk, nire katuak, erosi eta egun pare batera ihes egin zidan leihotik, zazpigarren solairuan bizi ginela kontuan hartu gabe; portzierto, edo katuen zazpi bizitzena gezurra da, edo Pituk lehenengo seiak bizi izanak zituen nire etxera etorri aurretik; a, eta arraintxoa ito egin zitzaidan. Ez nekien zer zen semaforo bat berde aurkitzea.

Iñazio, KORRIKA laguntzaile egin ondoren.



Bazirudien Murphyren legeak niretzat idatzita zeudela, eta zerbait txarto atera bazitekeen, txarto ateratzen zitzaidan, salbuespenik gabe.

Baina egun batean, AEK-ko lagun batek KORRIKA laguntzailea izatea proposatu zidan, eta baietz esan nion; harrezkero, bizitza goitik behera aldatu zait: lanak edonon ateratzen zaizkit, perretxikoen antzera; lagunak ezin dira ni gabe bizi; telefonoz gestio bat egin behar dudan bakoitzean, beti izaten da langile **gizatiar** bat libre, niretzat, hariaren beste aldean... Gauetik goizera, infernua paradisu bilakatu zait!"

Aurreko testigantza fikziozkoa da, eta bizitza errealarekiko edozein antzekotasun kasualitate hutsa da; alabaina, zure kasuan egia bilakatuko balitz? Eta KORRIKA laguntzaile ez egiteagatik zure irakasleak **izate** triste eta miserablea bizitzera kondenatuko bazintu? Utziko duzu ardura hori haren lepo?

Ez izan ankerra eta egin zaitez KORRIKA laguntzaile. Paradisua zure zain dago, nonbait; eta aurkituko ez bazenu ere, kontuan hartu zure ekarpenaren bidez KORRIKA aurrera ateratzen lagunduko duzula. Ez da gutxi, ezta?



## EGIN ZAITEZ LAGUNTZAILE

### Korrika laguntzailea izatearen abantailak

- Astero, **zozketak** egingo ditugu LAGUNTZAILEEN artean... **300 sari baino gehiago**...
- Oro har, **KORRIKAren ekimenetan lehentasuna edo deskontuak** izango dituzu.
- Deskontuak AEK-ko ikastaroetan ere. AIZU! aldizkariko harpidetzan...
- Eta, aldiro-aldi, gure berri jasoko duzu **KORRIKA laguntzaileentzako buletinaren** bidez.

... eta garrantzitsuena: **KORRIKAren parte zara, zure laguntzaz egingo dugulako aurrera.**

Eskerrik asko!

**Saihestezin:** inevitable; *inévitabile*

**Gizatiar:** humano, *-a; humain, -e*

**Izate:** existencia; *existence*